

## Urteko programazio didaktikoa

<b>IKASTETXEA:</b>	ABADIÑO BHI	<b>KODEA:</b>	015071
<b>ETAPA:</b>	DBH	<b>MAILA:</b>	3. Maila
<b>IRAKASGAIA:</b>	INGELESA		
<b>IRAKASLEA:</b>	Beatriz Barriola Ayerdi		
<b>IKASTURTEA</b>	2022-23		

### FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

#### Funtsezko konpetentziak:

1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
2. Konpetentzia eleaniztuna
3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia
4. Konpetentzia digitala
5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
6. Herritartasunerako konpetentzia
7. Ekintzaitza-konpetentzia
8. Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

konpetentzia espezifikoak <i>Competencias específicas</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testuak, hizkuntza estandarrean eta garbi adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, hala nola esanahien inferentzia, betiere zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan horien edukia baloratzeko</li> <li>2. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testu originalak sortzea, hedapen ertainekoak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak sormenez, egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.</li> <li>3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.</li> <li>4. Hizkuntza desberdinen arteko edo hizkuntza beraren modalitate eta erregistroen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako luzera ertaineko ahozko testuen etatestu idatzi eta multimodalen zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzea eta informazio egokia aukeratzea, berriroentzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.</li> <li>1.2. Gero eta konplexuagoak diren testuen edukia eta diskurtso-ezaugarriak interpretatzea eta baloratzea.</li> <li>1.3. Komunikazio-egoerarako egokienak diren estrategiak eta ezagutzak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, esanahiak eragiteko eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzeko.</li> <li>1.4. Informazioa bilatu, hautatu eta kontrastatzeko eta informazio hori jabetza intelektuala arautzen duten egiletza-lizentzien arabera kudeatzeko erabili ohi diren estrategiak erabiltzea, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasun eta fidagarritasuneko irizpideak aplikatuz .</li> <li>2.1. Komunikazio-egoerarako egokiak diren testu errazak, egituratuak, ulergarriak eta koherenteak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, jariahortasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko,</li> </ol>

<p>errazak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko.</p> <p>5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzez jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko</p> <p>6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura-eta arte-aniztasuna modu kritikoa baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz, asertibotasunez eta errespetuz jokatzeko</p>	<p>kontatzeko, argudiatzeko eta informatzeko, betiere hitzeko baliabideak eta hitzekoak ez direnak erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.</p> <p>2.2. Luzera ertaineko eta lexiko eta egitura aberatseko testuak antolatzea, idaztea eta hedatzea, argitasun, koherentzia, kohesio, zuzentasun eta sormen onargarriezeta proposatutako komunikazio-egoerara, testu tipologiara eta erabili ohi diren tresna analogiko eta digitaletara egokituz.</p> <p>2.3. Testuak planifikatzean, produzitzean eta berrikustean eta testuen prestaketankooparatzean erabili ohi diren ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera egokienak diren baliabide analogikoak edo digitalak erabiliz, herritartasun digital zibiko eta gogoetatsua burutuz, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.</p> <p>3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkronoak planifikatzea eta horietan partehartzea eta kolaboratzea zenbait euskarriren bidez, ekimena, jarrera kritikoa, sormena, enpatia eta hizkuntza-kortesiaren eta etiketa digitalaren aldeko errespetua erakutsiz, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen aldeko enpatia eta errespetua ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.</p> <p>3.2. Komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta uzteko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, arazoak berriro formulatu, alderatu, kontrastatu, laburtu, kolaboratu, eztabaidatu eta ebazteko, eta ingurune analogikoetako eta digitaletako egoera konprometituak kudeatzeko erabili ohi diren estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.</p> <p>3.3. Plangintza-eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta ingurune analogikoetan eta digitaletan sortzen diren gatazkak kudeatuz.</p> <p>4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio gero eta luze eta konplexuagoak inferitzea eta azaltzea, aniztasunari erantzun behar zaion eguneroko egoera errazetan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoan konponketan parte hartuz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.</p>
--	---

4.2. Zubiak sortzen laguntzen duten, komunikazioa errazten duten eta testuak, kontzeptuak eta mezuak azaltzeko eta sinplifikatzeko balio duten estrategiak aplikatzea, komunikazio-asmoetara, testuinguruaren ezaugarrietara eta testu tipologiara egokituak, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.

5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak argudiatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoz gogoeta eginez.

5.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko eta gero eta hitz-jario, egokitzapen eta zuzentasun maila handiagozkomunikatzeko gaitasuna hobetuko duten estrategiak eta ezagutzak sormenez erabiltzea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogikoeneta digitalen laguntzaz.

5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta aztertzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategiarik eraginkorrenak hautatuz eta ikaskuntzaren planifikaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (PEL) edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen horiek zehaztuz eta partekatuz.

6.1. Egoki, enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kultura arteko egoeretan —hala nola eTwinning plataformak edo Erasmus+ programak emandakoetan—, hizkuntza eta kulturen arteko loturak eraikiz, eguneroko komunikazio-testuinguruetan edonolako diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipoakbaztertuz, eta komunikazioa eragozten duten faktore soziokulturaletarako irtenbideak proposatuz.

6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa kritikoki baloratzea eta horretara egokitzea, kultura partekatua eta iraunkortasunarekin, giza eskubideekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzen lagunduz.

6.3. Hizkuntza-, kultura-eta arte-aniztasuna defendatzeko eta aintzat hartzeko erabili ohi diren estrategiak aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justizia-, ekitate-eta berdintasun-printzipioak errespetatuz.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta, ...] **SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...]

## 1. EBALUAZIOA

1. Flashcard making: -Irregular-verb championship
2. -vocabulary flashcards
3. Recording oral exams
4. Daily free writing, checking and commenting on peer's work

### UNIT 1: What a journey!

- Vocabulary: Journeys and feelings
- Reading: A blog entry
- Grammar: Past Simple / Past Continuous and Used to
- Listening: A discussion about a newspaper article and a dialogue about a trip
- Speaking: talking about explorers, describing past events and reporting on a trip
- Writing: A narrative

### UNIT 2: Achievements

- Vocabulary: Achievements and activities
- Reading: A web page
- Grammar: Present perfect simple /past simple and extreme adjectives and adverbs
- Pronunciation: silent letters and -ed verb endings
- Listening: A class presentation and A job interview
- Speaking: talking about famous people, past experiences and interests
- Writing: A news article
- Everyday English: Talking about yourself and a questionnaire

## 2. EBALUAZIOA

### UNIT 3: Holiday time

- Vocabulary: Travel items
- Reading: A travel magazine article
- Grammar: Future tenses
- Pronunciation: Word stress: compounds
- Listening: A conversation about travel plans
- Speaking: Discussing travel plans, talking about the future and choosing travel items
- Writing: Write an email about plans
- Everyday English: getting information and travel updates

### UNIT 4: Home and away

- Vocabulary: Places in town and around town.
- Reading: A web page
- Grammar: First, second and third conditional
- Listening: Phone conversations and directions
- Speaking: Talking about unreal situations, recommending a place and giving directions
- Writing: A description of a place
- Everyday English: giving directions and finding your way.

**UNIT 5: A plate of food**

- Vocabulary: Adjectives and menus
- Reading: a magazine article
- Grammar: relative pronouns, defining relative clauses and adjective order
- Pronunciation: sentence stress
- Listening: A description of a dinner and a food discussion
- Speaking: Describing food, talking about a meal and discussing food preferences
- Writing: A restaurant review
- Everyday English: Ordering food instructions

IKAS-EGOERA: ATLAS PROJECT

**3.EBALUAZIOA****UNIT 6. Being a friend**

- Vocabulary: Relationships and adjectives of personality
- Reading: A Legend
- Grammar: Modals
- Listening: Conversation about problems and A radio programme
- Speaking: Giving advice, comparing and talking about problems,
- Writing: A letter asking for advice and facts and opinions
- Everyday English: Saying you are sorry and apologies

**Reader:** The Elephant Man

**UNIT 7: Fighting crime**

- Vocabulary: Crime and crime reports
- Reading: Newspaper articles
- Grammar: Present and past simple passive and connectors of purpose
- Pronunciation: question intonation
- Listening: A dialogue about law and a police interview
- Speaking: Talking about crime, explaining words and reporting a crime
- Writing: A newspaper report
- Everyday English: Reporting an emergency and first-aid instructions

**UNIT 8: Innovations**

- Vocabulary: inventions and appliances
- Reading: A magazine article
- Grammar: Past perfect and past simple and connector of addition
- Pronunciation: word stress (2)
- Listening: A biography and a quiz show
- Speaking: Talk about past actions, about things you made and about inventions
- Writing: An essay about an invention
- Everyday English: Making a complaint and e-mails of complaint

**UNIT 9: Animal Planet**

- Vocabulary: the animal world and parts of the body
- Reading: A magazine article
- Grammar: Reported speech and connectors of contrast
- Pronunciation: linked words
- Listening: An animal description and a classroom lesson
- Speaking: Reporting a conversation and instructions and describing and comparing animals
- Writing: a report about an animal
- Everyday English: Doing research and a presentation

## IKAS-EGOERA: MASTER CHEF

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ikasleak protagonista eta ardatz izango dituen metodologiak baliatuko ditugu eta, konpetentzia espezifiko eta funtsezkoak helburu, komunikagaitasuna, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna izango dira landuko ditugun jakintzak.

Konpetentzia soziala, pertsonala eta ikasten ikastekoa oso presente izango ditugu ikasturte osoan zehar, jabetza baikara gure ikasleek beren bizipenak, emozioak eta izateko erak mahaigainean jartzeko duten beharraz. Hori dela eta, Logbook bat egingo dugu (Cuaderno de bitácora). Koaderno honen lanketa egunerokoa izango da eta bertan ikasleek 10 lerroko testu landutako sortu beharko dituzte nahi dutenari buruz. Ikaskideekin klaseko lehen 10 minututan partekatu eta elkarren testuei komentarioak idatziko dizkiete beren irudipen eta gogoetei buruz. Helburua ikasleek beren burua eta klasekideak hobeto ezagutzera iritsi eta ulertzea izango da. Irakasleak noizean behin koadernoak jasoko ditu lana elikatu eta jarraiarazteko, eta testu "berezirik" balego, interbentzioa egiteko.

Klaseetan metakognizioa ere ardatz izango dugu momento oro, bakoitzak nola hobeto ikasten duen, zer teknika eta baliabidek balio dion jabetzeko xedearekin.

Gainera, 2. ebaluaketan Atlas proiektua egingo dugu, pasatako urtean zoragarri irten zitzaiguna. Informazioa bilatzen, ebaluatzen, biltegitratzen, berreskuratzen ikasteko dugu, batetik. Bestetik, ikasten ikasteko teknikak lantzeko xedearekin, apunteak hartzen ikasiko dugu "Cornell" sistema baliatuz. Gero, hauetatik hitzaldiaren oinarri izango diren eskemak egingo ditugu. Amaitzeko, hitzaldia sartuko dugu herrialdearen aurkezpen sakona eginez.

Honez guztiaz gain, ahozkotasanari garrantzi potoloa emango diogu. Ikasleak bakarrizketan eta elkarriketan trebatuko ditugu, hitzaldia antolatzen irakatsiz eta honetarako hizkuntza espezifiko nola erabili jabeaziz. Guzti honetan funtsezkoa izango da konpetentzia eleanitza, hizkuntzen arteko berdintasun eta ezberdintasunek ikasleak testuekin lan bateratua egitera eramango baititu.

Bestalde, hiruhileko bakoitzean filme ezberdin bat ikusiko dugu, balio eta gai ezberdinak lantzeko helburuarekin, eta ikaslearekin interesekoak direnak.

Horrexegatik material tradizionalaz aparte, irakasleok, IKT-ak ahalik eta gehien klasean erabiltzen saiatuko gara (ordenagailuak, arbel digitalak, soinu grabagailuak eta mikrofonoak DVD-ak etab.)

Ikasleak motibatze eta parte hartzerantz bultzatzeko. Ikasleek gramatika azalpenak momentu oro eskura izan ditzaten, irakasleak sortutako bideo tutorialak Classroomen izango dituzte ikusgai.

Honek eramango gaitu metodologia batera, ikasketa prozesua komunikazio proiektuen bidezko ibilbide gisa ulertzen duena, testua ildo gisa hartuz, unitate didaktikoen bidez antolatua eta komunikazio helburuak dituen; hala ere **lehentasuna** nola-egiteari emango zaio ezagutza teorikoari eman

beharrean.Hau nabarmen ikusiko da proiektu lanetan..

Taldekatzeko sistema malgua izango da.; lan motaren araberakoa: talde handikoa ,bikotekoa edo banakakoa. Hainbat jarduera berezi diseinatuko dira ikasle ahulenei gutxiengo helburuak lortzen eta ikasle onenei aparteko trebetasunak garatzen laguntzeko.

## **BALIABIDEAK**

**TESTU LIBURUA:** *New English in use 3 (workbook)*

### **BALIABIDE DIGITALAK**

Liburu digitala

Classroom

Drive

Gmail

Power point

<https://www.burlingtonbooks.com/>

<http://www.lovereading4kids.co.uk/>

[www.bbc.co.uk/news](http://www.bbc.co.uk/news)

<https://www.ted.com>

[www.agendaweb.org](http://www.agendaweb.org)

[www.wordreference.com](http://www.wordreference.com)

### **BESTELAKOAK:**

- Nobela (“The Elephant Man”):
- Abesti, gramatika liburu, bideo,webgune, ordenagailu, arbel digital, joko ,eta aldizkarien erabilera eta beste ELT baliabideak..

<b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] <b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]	<b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] <b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación]
● Azterketak: Gramatika, hiztegia, Irakurmena, idazlana eta entzumenaren ulermena, ahozko komunikagaitasuna.	→ %30 (%50)
● <b>Lanak eta proiektuak</b> (errubrika bidez neurtua konpetentzia espezifikoak eta funtsezkoak neurtuz) - <b>Proiekturik ez dagoenean puntuen erdiak azterketa eta</b>	→ %40

<p>frogei emango zaizkie eta beste erdiak Logbookari</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Logbook</b></li> </ul>	<p>→ %30 (%50)</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...] <b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]</p>	
<p>Lehenengo ebaluazioan ebaluazio negatiboa duten ikasleek hurrengoren bat gaindituz gero edota Hedatze planean parte hartuz ebaluazio positiboa badute berreskuratuta izango dute, <b>ebaluazio jarraia</b> izango baita. Berdin berreskuratuko da bigarrena eta hirugarrena.</p> <p><b>Azterketa, proiektu/lan eta Logbookean gutxienez 3,5 izan behar da batzbestekoa egin ahal izateko.</b></p> <p><b>Aurreko ikasturteko Ingelesa</b> atzeratua izanez gero:.</p> <p>Ikasturteko ebaluaketaren bat gaindituz gero, aurreko kurtsoko ingelesa gaindituztat emango da.</p> <p>Horrela ez bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Apirilean egingo zaie azterketa. Gaindituz gero, aurreko mailakoa ere berreskuratzen da.</li> <li>● Hedatze eskola tara etorri beharko dira ikasleak.</li> <li>● Horrela gaindituko ez balu, kurtso amaierako azterketara aurkezteko aukera izango du.</li> </ul> <p>Indartze neurri moduan, <u>bi ariketa txosten</u> emango dizkiegu kurtsoan zehar lehenengoa, Gabon aurretik, urtarilaren bukaeran eginda bueltatzeko ; Bigarrena, Aste Santuko oporraldiaren aurretik, martxoan entregatzeko. <b>Txostenak derrigorrez egin behar dira apirileko azterketa egin ahal izateko.</b></p> <p><b>Halaber, txostenak eginda eta esandako epean eman ez gero, notaren %10 hortik aterako da.</b></p> <p><b>AZTERKETAN GUTXIENENKO NOTA: 4</b></p> <p><b>Honez gain, indartze neurri moduan ikasleak Hedatze eskoletara etorri ahalko dira.</b></p>	

**OHARRAK OBSERVACIONES**

**EGOKITZAPENAK**

**BIGARREN AGERTOKIA**

Covid dela eta, ikasleekin bigarren agertokian lan egin behar badugu, programazioan aipatutako helburuak mantenduko dira.

Metodologiari dagokionez, printzipioz zerrendaren arabera bi taldeetan banatuko dira ikasleak. Aste batean talde bat gelan bertan egongo da eta bestea etxetik jarraituko du klasea. Hurrengo astean etxean gelditu den taldea gelara joango da eta bestea etxean geldituko da.

Gelako ordutegia jarraituz, bi taldeekin klase emango da aldi berean. Etxean daudenek Meeten bidez jarraituko dute klasea eta beharrezkoa izanez gero, baliabide gehigarri edota lana classroomen bidez jasoko dute.



Bideodeietan parte hartzea ezinbestekoa da. Ikasleren batek parte hartzen ez badu, hutsegitea bezala kontuan hartuko da. Bideodeietan kamara piztuta izan beharko dute ikasleek.

Azterketak presentzialak izango dira. Gelan dagoen taldeak asteko azken saioan egingo du azterketa. Etxean dagoenak, berriz, gelara bueltatzen den lehenengo saioan egingo du.

Ebaluazio irizpideak direla eta, programazioan aipatutako adierazleak kontuan hartuko dira. Horretaz aparte, beste adierazle bat gehituko da (ea bideodeietan parte hartzen duten ikasleek).

### **HIRUGARREN AGERTOKIA**

Covid dela eta, ikasleekin hirugarren agertokian lan egin behar badugu, ikasleek etxetik lan egin beharko dute.

Klaseko ordutegia jarraituz, ikasleek egin beharreko lana classroomean jasoko dute. Horretaz aparte, astean behin bideodei batean parte hartu beharko dute. Bideodei horretan azalpenak emango dira eta zalantzak argituko dira. Bideodeietan parte hartzea ezinbestekoa da eta kamara piztuta izan beharko dute ikasleek.

Baliabide gehigarri behar izanez gero, classroomen bidez helaraziko zaie ikasleei.

Ikasleek irakaslearekin harremanetan jartzeko classroom zein gmail erabili ahal izango dute.

Azterketak ere online egingo dira. Azterketa egiten den bitartean kamara piztuta izatea ezinbestekoa da.

Ebaluazio irizpideak direla eta, programazioan aipatutako adierazleak kontuan hartuko dira. Horretaz aparte, beste bi adierazle gehituko dira (ea ikasleek bideodeietan parte hartzen duten eta ea ikasleek garaiz entregatzen dituzten lanak).